

Arrasate

UPRESSS

1996ko
Uztailak 12
328. zenb.



Txatxilipurdiren eskutik
Udalekuak
Garaion

IRITZIA

Joseba Ezpeleta

KULTURA

Iñaki Unamuno

KIROLAK

Santamainako
Futbito
Txapelketa


USTEAK USTE

Amaia
Jauregi-Arraburu




ILEAPAINDEGIA

Gorbea, 2 Behea
Tfnoa: 77 09 44
ARETXABAETA



Emaiozu kolorea zure bizitzari!



Tattam Club-ek aurkezten du

FRANKENSTEIN

Iñaki Unamuno

arrasatearraren partaidetzarekin

Uztailak 12, ostirala

MONTERRON PARKEAN

(Eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian)


Gaueko 10.30etan

Sarrerak: 800 pta.

Gazte-Txartelarekin: 600 pta.

ARRASATEKO UDALA





LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Albokoaren aldeko langileei

Karme Perezen txanda zen, berak sinatu behar zuen hirugarren orrialde honetako sarrera artikulua, baina ez zaigu bere idatzirik ailegatu. Izan ere, Guatemalan da Karme, lanean. Faxez zerbait bidaltzen saiatuko zela esan zigun arren, argi dago ez zaiola posible izan. Batek daki zer aurpegi jarriko zioten fax-aren eskakizuna egiterakoan. Beste mundu bat ei da hura.

Iaz ere Guatemalara joan zitzaigun Karme, aurtien letxe, ezeren truke lan egitera. Berak bezala azkenaldian jende askok pasatzen ditu oporrak era horretan, inoren aldeko lana eginez eta trukean ezer eskatu barik. Arraroa egiten zait. Gizartea gero eta berekoiagoa ei da, geure sabela neurritz betetzeaz gain gutxi inporta ei zaigu aldamenekoaren egoera. Elkartasun eza, diru egarria, harremanen hoztasuna... erregetzen ari diren bitartean, Guatemala, Nikaragua, Kuba, India, Iran eta hirugarren munduko beste toki asko jende ugariren topaleku dira.

Kontua da gizabanakoen eta gizatalde-

en ekimenak direla aurrez aipatutakoaren antzerakoak, Erakunde Ez Gubernamentalak. Gobernuak paso egiten dute, eta hainbeste aldarrikatu izan den 0,7ra ere ez dira iristen gehienak. Eta hori hirugarren mundua dagoen moduan egotearen erruaren zatirik handiena, mendeetan zehar aldamenekoaren edo urrutikoaren lurrez eta ondasunez jabetzeko ahalegine-tan jo eta ke ibili diren eta dabilzan lehen munduko gobernuena dela. Han eta hemen izugarritzko sarraskiak egin ondoren, tokian tokiko kulturak suntsitu ondoren, ongizate eredu atzerritarrek jarri dizkiete hirugarren mundutarrei, begien aurrean eta begibistan bai, baina ez eskura.

Zorionez, Karme moduko asko dabil munduan zehar, nahiz eta guretako hobe litzatekeen fax-a eskura izango zukeen toki batera joan izan balitz. Mundu hobeago baten esperantza osoa ez dago beraz galduta.

BEÑARDO KORTABARRIA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karme Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.

Memesa

79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

IBARRA Garajea S.L.



EBRO NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



Juan Carlos Guerra
enparantza
Tfnoa: 79 18 39
ARRASATE

Mitarte, 18
Tfnoa: 79 53 51
ARETXABAETA

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

•••••

Ilegaltasun demokratikoa

Giza eskubideak, pakea, tolerantzia, biolentokiak... horrelako hitzak entzuten ditugu egunero komunikabideetan, politiko "pakezale", "demokratiko" etab.en ahotan.

Azkenaldian beste hitz bat jarri da modan guzti hauen artean: hurbilketa politika.

Aspaldidanik gabiltza euskal herritarrok kalean euskal presoak Euskalerriratu ditzaten eskatzen; zeren ez dezagun ahaz estatu espainiar zein frantziarraren eskuetan daudela.

Zergatiak aski ezagunak dira jada: lege penitentziarioak horrela agintzen duelako eta euskaldun kolektibo honek bere giza-eskubideen aurkako bortxaketei erantzuteko bere herri eta sendeengandik hurbil egon behar dutelako. Baina beraien legalitatea kunplitu beharrean, hurbilketa politika asmatu dute. Argi dago estrategia hau ez dela estatuaren borondate oneko gestu bat, baizik eta errealitatea da hurbildutako preso gu-

txiak kondenaaren 3/4ak bete dutenez, kalean egon behar zuten (Hau da Pako Roblesen kasua). Beraz argi esan behar da: orain eta baldintzarik gabe, euskal preso guztiak Euskal Herrira!!

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.


- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenan kaleratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

Frantziako Tourra segitzen duzu? Nork irabaziko du?



Jose Utadauro
(43 urte)
Langilea

Ez dut afizio gehiegi, baina gauzak nola dauden ikusita Rijjsek irabaziko duela uste dut.



Bixente Barandiaran
(85 urte)
Jubilatua

Bai segitzen dut, baina porrarik ez dut egiten, ez zait gustatzen. Neure faboritoa Indurain da, hura eta Olano, hemengoak.



Jone Arana
(50 urte)
Langilea

Neukez dut ikusten, gizonari etxean entzundakoa dakit bakarrik. Indurainek irabaziko du, ez?



Marian Apolo
(27 urte)
Langilea

Ez, ez zait batere gustatzen eta ingurukoek ere ez didate pelmada handiegirik ematen. Indurainek irabaziko du, beti bezala.



Txaro Etxeberria
(21 urte)
Ikaslea

Mendiko etapak eta ikusten ditut, baina besteak ez. Indurainek irabaziko du.



Cruz Solas
(40 urte)
Langilea

Ahal dudan moduan, bidezoz grabatuta ikusten dut. Iaz lantegian egin genuen porra, baina aurten ez. Indurainek irabaztea espero dut, nahiz eta 4 minutuko atzerapena izan.



Iker Jurado
(14 urte)
Ikaslea

Ez dut ikusten, ez zait gustatzen eta. Indurainek irabaziko du, galdutakoa errekuera dezake.



M^a Angeles Garate
(53 urte)
Etxekoandrea

Apurtxo bat ari naiz segitzen, bai, baina gehienbat senarrarengatik ikusten dut. Nafarra atze samarrean doa, baina bera da nire faboritoa.

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

JUBAR

- Ate eta persiana automatikoak
- Automatismoak
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte-tresnak

Kataide Poligonoa, 18
ARRASATE
Tfnoa: 79 10 20 • Faxe: 79 08 17

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualetoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 12
 Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina. Egunez eta gauez: Camahco. Bergara.

Larunbata 13
 Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Igandea 14
 Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Astehena 15
 Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Asteartea 16
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Asteazkena 17
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 18
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

12 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Hackers" 7etan eta 10etan.
- **SANTAMAINAKO JIAIK**
 Arratsaldeko 5etan marrazki lehiaketa Makatzenan. 7etan etxafleu jaurtiketa. 7.30etan IV. futbito txapelketa. 10etan tute txapelketa. 11etan dantzaldia.
- **ASANBLADA SEBERON**
 Gestorak antolatuta asanblada Seberon arratsaldeko 7.30etan. Bertan euskal pre-soen gaur egungo egoera aztertuko da.
- **ANTZERKIA MONTERRONEN**
 Tattan Club-en taldearen Frankenstein antzezlan Monterronen gaueko 10.30etan. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian izango da. Sarrera: 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.
- **DROGAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**
 Deba Garaiko Drogazale eta drogazale ohien senitartekoei hainbat ekintza antolatu dute Bergaran. Arratsaldeko 6.30etan giza-katea San Martin Plazan. 7.15etan Manifestoaren irakurketa. 7.45etan dantzarien emanaldia. 8.15etan Aritzeta abesbatza eta 8.45etan dultzaineroak.

13 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Las dos caras de la verdad" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMAINAKO JIAIK**
 10etan diana eta bolo palma txapelketa. 11etan xake txapelketa Los Hermanos eta Montserrat tabernetan. 11.30etan umeentzat jokuak. 1.30etan Rocio meza. 5etan pilota partiduak. 5etan moto txikien erakustaldia. 6.30etan herrijaialdia Mentu plazan bigantxa eta poniekien. 7.30etan erraldoi eta kilikien kalejira. 9etan kale antzerkia Tunantes del Norte taldearekin. 11etan Calisma taldearekin dantzaldia eta 11etan rock jaialdia Brutal Melodi, Altar eta Arsenal taldeekin Makatzenako frontoian.
- **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 "Fuck you crew" Berlingo taldearen kontzertua gaueko 9etan. AGAKOk antolatuta.

14 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Las dos caras de la verdad" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMAINAKO JIAIK**
 9.30etan diana. 10etan txirridulari lasterketa eta bolo Palma txapelketa. 11etan paella lehiaketa. 12etan meza nagusia La Merced elizan. 12.15etan aerobic topaketa Agerre plazan. Arratsaldeko 4etan mus txapelketa. 4.30etan burusoilen txapelketa. 5etan igela txapelketa Egipte Elkartearen. 5.30etan dantzak Agerre plazan. Taldeak: Lore Gazteak, Doce Lembranzas, Alardes De Castilla y Leon. Danzas Villa de Briones eta Corazon de Encina taldea. 7etan erraldoi eta kilikien kalejira eta 10etan Calisma taldearekin dantzaldia.
- **SAN KRISTOBAL JIAIK ARAMAION**
 Eguerdiko 12.30etan San Kristobal Ermitan meza. 1.30etan dantzariak eta Vermouth dantza. Arratsaldeko 5.30etan Epelde anaiak trikitilariarekin dantzaldia. 5.30etan Bolo txapelketa. Ohitura den bezala ogitar-tekoak eta salda beroa egongo da.

SANTAMAINAKO JIAIK

Santamaina jai giroan murgilduta egongo da ostiraletik domeka bitartera. Era guztietako ekintzak antolatu dituzte gazte eta ez hain gazteek ederto pasa dezaten. Goizetik gauera arte beraz, ez da aspertzeko astirik izango Santamaina aldean.



15 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Las dos caras de la verdad"
 7etan eta 9.30etan.

• **DIAPOSITIBA EMANALDIA**
AITA MENNIN
 Gaia: Israel eta lurralde Santuak.
 Egileak: Txaro Polo eta Jose
 M^a Marruedo. Aita Mennin
 arratsaldeko 5etan.

16 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "Las dos caras de la verdad"
 7etan eta 9.30etan.

LORE GAZTEAK
DANTZA TALDEAREN
EMANALDIA

Uztailaren 19an Lore
Gazteak taldeak
emanaldi berezia
emango du Monterro-
nen gaueko 10.30etan.

17 ASTEAZKENA

• **DIAPOSITIBA EMANALDIA**
AITA MENNIN
 Gaia: Tierra Santa. Arratsalde-
 ko 5etan Aita Mennin.


• **KONTZERTUA GAZTETXE-**
AN
 "Bud's Balooxe" Berlingo Ska
 taldearen kontzertua Gaz-
 tetxean gaueko 8etan. AGA-
 KOk antolatuta.

18 OSTEGUNA

• **ZINE-KLUBA MONTERRO-**
NEN
 "Braindead" gaueko 10.30etan
 Monterronen. Sarrera 400
 pta. eta gazte txartelarekin
 350 pta.

ETXEKO JANTZIEN
ERAKUSKETA

Uztailaren 15etik 22ra
etxeke jantzien era-
kusketa Monterronen.
Ordutegia: lanegune-
tan 6etatik 8etara.
Larunbata eta jaiegu-
netan eguerdiko
12etatik 2etara eta
arratsaldez 6etatik
8ak arte.



JOKIN ZAITEGI X. ITZULPEN LABURREN SARIKETA

Lehiaketa horretan edozeinek har dezake parte. Gaia librea da. Lehiaketara munduko edozein hizkuntzetatik gaztelanatik izan ezik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Testuaren luzeerak gutxienez 15 eta gehienez 30 orrialdekoa izan behar du. Lan guztiak lema batez sinatuko dira, haiekin batera sobre itxi bat aurkeztuko da, azalean lema bera aipatuz eta barruan egilearen datuak eta telefonoa jarritz. Lanak AED Elkartera Pablo Uranga kalea 4 behera bidali behar du urriaren 30a baino lehen. Epamahaikideek irizpide hauek izango dituzte kontuan: gaiaren gaurkotasuna eta puntakotasuna, etorkizunerako balioa, testuaren interesa eta erabilgaitasuna, itzulpenaren zuzentasuna eta euskararen dotoretasuna.

BASOGINTZA IKASTAROA

Arrasateko Udalak, INEMen dirulaguntzarekin basogintza ikastaroa antolatu du. Iraupena: 400 ordu irailaren 30etik azararen 15a arte. Ordutegia: 6 ordu egunero goizez. Parte hartzeko baldintzak langabetua izatea eta INEMen erregistratuta egotea. Izena emateko azken eguna uztailaren 19. Horretarako Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzura zuzendu edo 79 09 00 zenbakira deitu.

AKANPADA EUSKAL
PRESOEN ALDE

Uztailaren 19, 20 eta 21ean Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko akanpada Monterronen. Ostiraleko Asanbladaren ostean hasiko da akanpada. Ondoren diapositiba emanaldia. 20an ekintza desberdinak eta gauean afaria Arbolapetan. Bertara joateko txartelak Irati tabernan salgai. 21ean enkartelada mugikorra. Hiru egunetan zehar parte hartzaileen bidez Asanbladak eta proposamen desberdinak egiteko aukera egongo da. Arrasateko Jarraik antolatzen du akanpada.

EUSKARA IKASTAROAK
LANGILE KOMISIOAK
ANTOLATUTA

Hirugarren mailako
euskara ikastaroa
Langile Komisioak
antolatuta. Hasiera
irailaren 9an. Izenema-
teko azken eguna
irailaren 4an. 100
orduko iraupena.
Dohainik izango da.
Informazio gehiagora-
ko deitu 79 52 60 edo
76 46 51 zenbakietara.

“Bakarrik espero dut nire birlobek... etorkizunean gure herriko kaleetan jaietan irtetzen direnean, alardeak egingo dituztela Irun, Ibarra eta beste herri askotako emakumeak oroitzeko... Eta ez dadila gertatu hemendik 100 urtera, jende arraroa ertzain mozorrotuta gurea balitz bezala desfilatzen. Atzoko eta gaurko gure heroiak kaleko jantzia dute, eta batzuek burdin trangak tarteko”.

Txaro Guerrero, 1996-7-3.

egin

“Enpresa batek inguru lehiakorra behar du, enpresa handiak desbertikalizatu egin direlako. Enpresa batek diseinua eta ideiak izan ditzake, baina hornitzaileekin eta saltzaileekin beste entitate bat osatzen du. Hortxe kokatzen da Japonian lehen aldiz bultzatu zen ideia: kalitatea bere osotasunean ulertu eta kalitatearen kultura bultzatu behar da, lan egiteko modua aldatu alegia. Hori barneratuz gero, kalitatea gauza naturala da.

(...) Diziplina eta ordenamendua premiazoak dira. Nahikoa anarkoideak gara, bapateko erabakiak hartzen dira askotan, heroiak bezala jokatzeko baitu askotan enpresariak, bat-bateko erabakiak eta bidezidor laburrena hartu nahirik beti. Kalitateak, ordea, metodoak paperetan ibiltzea eta paperetakoak betetzea eskatzen du. Neurtzea eta idaztea ezinbestekoa da, gero auditoriak eta etengabeko ikuskaketak egitean errealitatea eta asmoak alderatzeko. Bestalde, Gobernuari eta Administrazioari ere, dudarik gabe, kalitate kontrola pasarazi behar diogu. Kalitatea estrategikoa bada, fase guztietan eta eragile guztietan bultzatu behar da”.

Jesus Larrañaga, 1996-7-7.

Egunkaria

Zer erakutsiko du Lore Gazteak-ek dantza emanaldian?

Datorren ostiralean, uztailaren 19an, Lore Gazteak taldearen dantza emanaldia izango da ikusgai Monterron parkean. Udalaren laguntzarekin antolatu dugun saioaren helburua urtean egindako lanaren emaitza erakustea izango da. Urtean zehar dantza berriak ikasi eta ikasitakoak ez ahazten ahalegintzen gara, eta lan hori herriari erakutsi nahi genioke.



Agurtzane Lizarralde
Lore Gazteak-eko partaidea

Era horretan, arrasatearrindako ezezagunak diren dantzak eta ezagunak diren dantzatuko ditugu. Berriei dagokienez Gipuzkoako Sorgin dantza, Nafarroako Kortes dantza eta Neskaxena gipuzkoarra izango dira ikusgai.

Emanaldia Lore Gazteak-eko dantzari nagusiok eskainiko dugu. Gutxi gorabehera 25 izango gara dantzan arituko garenak, eta horrez gain, txistulariak eta gaiteroak izango ditugu lagun. Hemen-dik arrasatear guztiak animatu nahi nituzke datorren ostiralean Monterronera hurbiltzen emanaldiak mereziko du eta.

Bestalde esan, abuztuaren bukaeran Lore Gazteak Valladolidera joango dela han beste emanaldi bat eskaintzera. Komunitate desberdinetako taldeei deitu eta dantza jaialdia izaten da urtero Valladoliden, eta aurten hara joateko deitu digute. Valladoliden herriko emanaldi bera eskainiko dugu, beraz, Arrasaten ostiralean eskainiko digunak asko lagunduko digu.

PUB HAIZEA

arrasate

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 72

beinke

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

Enpresa Berritzaileen Zentrua aurkeztu

Udaletxean aurkeztu zuten joan den ostiralean Arrasateko EBZ. Aurkezpen ekitaldira enpresetako eta administrazioko zenbait ordezkari hurbildu zen, eta guztiek EBZari laguntza emateko konpromezua azaldu zuten. Saiolaneko gerenteak bestalde, zentruaren helburua zein den eta zein eratako laguntza eskainiko duen azaldu zuten. Horrez gain, zentruaren partaide izango diren lehen enpresen berri eman zen.

Behin aurkeztuta, oporren ostean zentrua eratzeko eskriturak sinatuko dira, eta egoitza zein izango den ere zehaztuko da. Hasiara batean Musakolan jarriko zela uste bazen ere, beste bat izango da kokalekua.

Gestoren asanblada

Gestorak deituta asanblada informatzailean egin zen joan den ostiralean. Asanbladan herriko errefuxiatuen eta deportatuen egoera zein den, eta

ondoren, gobernuak presoak gerturatzeko duen plana jorratu zen. Gestoren arabera preso guztiek dute Euskal Herrian egoteko eskubidea, eta horregatik, ez dute preso bakar batzuen hurbilketa onartzen.

Asanblada burututakoan manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar.

Ertzaintzak gaztea atxilotu

Astelehen arratsaldean



Eguraldi txarrak jaia zapuztu ez

Euritsu esnatu zen zapatu goiza, eta ondorioz, El Rocioko erromeria bertan behera uztekoan egon ziren Arrasatera etorritako andaluziarrak. Eguerdirako atertu zuela eta, azkenean El Rocioko amabirjina Udalara igotzea erabaki zuten eta behin Udalan meza rozieroa ospatu zen. Ondoren, Udalako zelaietara abiatu ziren guztiak eta musikarekin lagunduta dantza andaluziarrak izan ziren ikusgai. Eguraldia txarra izan arren, urtero moduan Euskal Herriko toki desberdinetatik etorritako hainbat andaluziar bildu zen Udalan.

25 urteko arrasatear bat atxilotu zuen Ertzaintzak Arrasaten. Ekainaren 21ean herriko lantegi batean 600.000 pezeta lapurtu zituelakoan atxilotu zuten gaztea. Astearte goizean Bergarako epailearen aurrean deklaratu zuen ustezko lapurrak eta ondoren aske utzi zuten.

JAIOZKAK

- Ander Nuñez Alonso de Armiño. Ekainaren 25ean.
- Itxaso Arana Zubia. 26an.
- Ander Lazkano Rayo. 26an.
- Itziar Heriz Iturbe. 29an.

EZKONTZAK

- Jose Mari Sagasta Ortubai eta Maria Concepción Moyua Altube. Ekainaren 15ean. Zibilez.
- Enrique Diaz Selamanca eta Raquel Bouzon Labandeira. 29an. Elizatik.
- Jose Maria Vitoriano San Vicente eta Maria Teresa Benito Hernandez. Uztailaren 6an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Hipolito Urribarren Altuna. Ekainaren 26an. 86urte.
- Saturnina Zapatero Sanz. 27an. 92 urte.
- Rosa Artaburuaga Zabaleta. 30ean. 91 urte.

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentegarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentegarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

BANKINTER
A G E N T E A

Lor itzazu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute errententziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukerari batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorritik aprobetxa dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren araberrako aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekarria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74



* Joseba Ezpeleta

Euskara elkarteen Topagunea eratu da

Euskara Elkarteen Topagunea joan zen ekainaren 15ean eratu zen formalki Durangon; eraketa-batzar horretan, proiektu honetan parte hartzeko interesa azaldu genuen 29 euskara-elkarte bildu ginen. Horrela, Gipuzkoako 13 elkarte, Bizkaiako beste 13, Arabako bi eta Nafarroako bakar bat Euskal Herri mailako federazio bakar batean bildu gara.

Tolosako Galtzaundik euskara-elkarteen harreman-bideak garatzeko proposamena luzatu ondoren, iazko urtarrilean Gaztelun 19 euskara-elkarte bildu ginen proposamen hau eztabaidatzeko. Topaketa horretatik Topagunea eratzeko talde eragile bat sortzen da. Maiatzean Zarautzen ospatzen den bileran talde eragileak eginiko lana aztertu ondoren, azaroan Bergaran 23 euskara-elkarte bildu ginen Topagunearen oinarriak eta eraketa-prozesua onartzeko.

Bergaran iazko azaroan onartutako Euskara Elkarte- en Topagunearen oinarriak deritzan txostenean dioen legez, Topagunea euskara-elkarteen bilgunea da, beti ere elkarte- en aniztasuna erres-

petatuz. Anitzak izan arren, badauzkagu amankomune-ko oinarriak (helburuak, izaera autonomia, zabalak, euskararen aldeko joeren, ekin-tzen eta zerbitzuen bultzatzaile...).

Amankomunean hain-beste izanik, Topagunea sortzeko zergatiak asko dira, besteak beste, era guztieta-ko baliabideen optimizazioa, harremangunea, esperientzia eta ideien trukatzea, kanpo- ra begira multzo baten ordez- kari den interlokutore baka- rra, jarrerak bateratzea... Topagunearen izatearen oina- rrizko arrazoi bat euskara- elkarte- en norabidea euska- raren zerbitzura ahalik eta modurik egokienean egon dadin ziurtatzea da, hortara- ko euskara-elkarte- en egoe- raren diagnostia eta hausnar-

keta izango direlarik bere zeregin nagusienetarikoak.

Bergarako topaketan onetsiriko oinarriak errefe- rentzia izanik, talde eragile- ak eraketa biltzarrerako aurre- lanak prestatu zituen (esta- tutuak, egitasmoa, aurre- kontuak, egoitza, zuzenda- ritza...). Prozesu guzti hau Durangon ekainaren 15ean bukatu zen Euskara Elkarte- en Topagunearen eraketa- biltzarrerarekin, bertan bazki- deen formalizazioa, estatu- tuen eta egitasmoaren onar- pena, zuzendaritza batzor- dearen izendapena eta 1996ko aurrekontuaren onse- pena egin zirelarik.

Eraketa-biltzarraren ondoren, Topaguneak one- tsitako egitasmoa burutu beharko du, bai beraren bar- ne- antolaketari dagokiona eta baita egitasmo zehatza ere, besteak beste, euskara-elkar- teei buruzko ihardunaldiak, aldizkari- en arteko elkarlana, euskara-elkarte- en azterketa eta garapena ahalbideratze- ko sistema prestatu, euska- ra-elkarteak Topagunearen egituraren eta dinamikan txer- tatu.

.....
*“Topagunea
 euskara-elkar-
 te- en bilgunea da,
 beti ere elkarte-
 en aniztasuna
 errespetatuz.”*

* AEDKO ORDEZKARIA
 TOPAGUNEAN

USTEAK USTE

ADOREA GALDU GABE

Hiru urte pasa dira 1993an Adorek, akusazio izateko asmoz, Donostiako Epaitegian Gipuzkoako narkotrafiko sareen eta, batez ere ustez Intxaurren- doko kuartelean sortu zenaren kontra, salaketa aurkeztu zuenetik. Geroztik beste hainbat aurkeztu izan baditu ere, ez du batek ere aurrera egin Epaitegiko Fiskala ez zenean Epaia bera baitzen atzera botatzen zituena. Hiru urte hauetan, aldiz, ez dut jakin ere nahi zenbat trafikante txiki edota trapitxeoan aritutakoak izan diren epaituak. Nor pentsa- tuko du bada Justizia denori berdin aplikatzen zaigunik? Begiak estalita aurkezten den Andere horrek tranpa egiten duela eta zapiaren atzetik ikusi egiten duela?

Denok entzun izan ohi dugu legeak goikoek jarriak direla euren interesen defentsarako, eta hainbat kasutan legeak interpretatu eta aplikatzen dituztenak ere esango nuke nik. Gainera legeren bat ez bazaie gutziz gustoko, eurek dute aldatze- ko ahalmena ere, besteok ados egon gaitzeko edo ez, baina ez dugu ahalmen hori eskuratuko. (Bai, badakit milaka sinadura jasoz gero eskatu dezakegula lege baten aldaketa, baina ia ezinezkoa bihurtzen da, teoria hutsean geratuz beraz).

Hori bai, demokrazia ikutua eman behar zitzaioa eta Herri Epaimahaia martxan jarri da. Bertan parte hartzea behartuta zaude aukeratua izan bazara behintzat, ez, ez pentsa borondatezko gauza denik. Baina zaude lasai: oiloa lapurtu duen txiroa, edota trapitxeoan harrapatutako gaztea... epaitu beharrik baino ez duzu izango eta, noski, goiko horiek ezarrita- ko legeen arabera epaitu ere, baina benetako delin- kuenteok ez dira Herri Epaimahai baten aurrean eseriko, horretarako bete beharreko tramiteak bidean geratuko dira eta.

Dena den, nahiz eta aipatutako guztia benetan sinistu, Adoreri aderez jarraitzeko besterik ezin diot eskatu, salatzen eskubidea behintzat badugu eta.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU



Gaur Rafi Romero ezkondu behar zelako, eta beste zinegotzi batzuen eskariz aurreratu zen plenoa egun bat.

PSE-EEren eta EBaren mozioak atzoko plenoan

Atzo, ostegunean, hileroko plenoa egin zen. Gaur Rafi Romero, zinegotzi sozialista, Jesus Egigurenekin, PSE-EEren idazkari probintzialarekin ezkondu behar zelako, eta beste zinegotzi batzuk plenoa atzo egitea nahiago zutelako aurreratu da egun bat.

Hainbat puntuz gain bi mozio aztertu behar ziren atzokoan, Ruiz de Urchegiren, Adegiko idazkariaren, aurka egindako atentatua gaitzesteko PSE-EEK aurkeztutako mozioa. Mozioan esaten zenez, herriaren garapena bultzatzen dutenen aurkako erasoek atzerapena baino ez dakarte, eta horregatik, horrelako atentatuak egin edo txalotzen dituztenen jarrera salatu behar da. Seguruenik, alderdi gehien laguntzarekin aurrera aterako zen mozioa.

Bigarrenik, Partidu Popularrak estatu gutzirako ezarri nahi dituen neurri ekonomikoen aurka, Ezker Batuak jarritako mozioa aztertu behar zen. Mozioan esaten denez, hirigintza ekintzetatik sortzen den plusbalia gutxitu nahi du PPK eta horrek Udalaren erre-

kurtsoak gutxitzea ekarriko du.

Beste gai batzuk

Arrasatek zenbat biztanle dituen ere jakinarazi zen atzoko plenoan. Azken hila-beteetan udal-errola berritzen aritu da hainbat langile, eta maiatzaren 1ean kontaketa bukatu zuten. Horren arabera, 24.565 biztanle ditu Arrasatek.

Bestalde Udaleko, Diputazioko eta Euskaltegiko langileen lan baldintzak jasotzen dituen ARCEPAFE hitzarmena ere ontzat eman behar zuen plenoak. Akordioan jasotzen denez, langile horien soldata %4 igoko da eta 10.000 pta. gehiago ere jasoko dute. Bukatzeko, Iturbide Egoitzaren aurrekontua eta lantaldea aldatzeko proposamena egin zen. Alde batetik, orain arte subkontratatu ta zeuden 19 auxiliar kliniko lehiaketa bidez udalak aldi baterako kontratatzea nahi ditu. Bestalde, egoitzako arropen garbitasuna egiteko adjudikazioa lehiaketara ateratzea proposatuko zen.

Udala eta ingurugiroa

Udaleko hirigintza batzordeak ingurugiro alorrean dituen ahalmenei buruzko txostena egin du. Errekara eta airera egiten diren isurketen inguruan udalak dituen ahalmenen berri ematen da txostenean. Errekara egiten diren isurketen inguruan udalak ez du zigorrik ezartzeko ahalmenik, horretarako eskubidea Eusko Jaurlaritzak du eta. Kasu batean bakarrik dauka Udalak zigorra jartzeko eskubidea, errekarara egiten den isurketa hobi batetik egiten denean. Kasu honetan kome-nigarria izango da argazkiak egitea, eta ur apur bat hartzea ondoren analisisa egiteko. Airera egiten diren isurketek dagokienez, zigorra 100.000 pzeta baino gehiagokoa ez denean alkateak dauka eskubidea zigorrak jartzeko. Isurketa moeta honetan ere garrantzitsua da isurketaren inguruko frogak hartzea.

Udalak bestalde, deia luzatu die herriko enpresei isurketarik ez egiteko helburuz lantegietan beharrezko neurriak har ditzaten.

Arrasateri buruzko mapak

Udalaren eskariz Arrasateri buruzko mapa berriak egin dira, eta mapa horiek irailaren erdialdean banatuko dira herriko etxe gutzietan. Aurrez egin zen mapa zahar- kituta geratu zelako erabaki zen berria egitea.

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



HAURTXOIA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE



San Antolin ikastetxean hasiko dute ikasturtea haur eta lehen hezkuntzako ikasleek.

Eskola publikoen eskaintza Musakolan zentratuko da

Irailean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza izenez ezagutzen den zikloa hasiko denez, berrantolatatu egin behar izan da herriko eskaintza publikoa. San Andreseko eta Erguingo eskoletan 12 urtera arte ikasteko aukera izango bada ere, Musakolan etapa guztiak egiteko aukera egongo da.

Joan den astean San Antolin ikastetxean obrak hasi ziren, eta bertan 2 urtetik 12 urtera arteko gaztetxoek ikasiko dutenez, irailetik aurrera Musakolako Herri Eskola deitura hartuko du eraikin horrek. Orain arte Herri Eskola izan dena, berriz, DBH hasi-

ko dutenendako izango da eta Musakola Beheko Institutua izena jarriko diote. Azkenik, orain arte moduan, Institutuan batxilergoa ikasteko aukera izango dute 16 urtetik gorakoek.

Guztira 140 gaztek hasiko dute DBHa Musakolan, eta herriko ikasleez gain Aramaiokoak ere etorriko dira. Azken horien dako jantoki subentzionatua izango da eta baita dohaineko autobus zerbitzua ere. Bestalde, Musakolatik urrun bizi diren arrasatearrendako ere dohaineko autobus zerbitzua izango da.

Dirulaguntza UEUari

Udako Euskal Unibertsitateari 29.000 pezetako dirulaguntza eman dio Arrasateko Udalak. Horrez gain, UEUn parte hartzeko laguntza eskatu duten hiru arrasatearrek beka jasoko dute.

Epeleri buruz hainbat ohar

Deba Garaiko hondakin inerteen zabortegeari buruzko salaketa txostena bidali du Diputazioak Udalera. Arrasateko Udalak, berriz, erantzun dio Epelaren ardura Mankomunitateak duela, eta beraz, erakunde horretara bidali behar dutela txostena. Gainera, Epele Bergarako lursailetan dagoenez, Arrasatera baino lehenago Bergarako Udalera bidali beharko luketeela adierazi diote.

Jaurlaritza eta MCC

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak ontzat eman du MCCrekin garatuko duen plana. Industria Sailak laguntza emango dio MCCri 83.000 milioi inbertitzeko, eta 3.100 lanpostu sortzeko.

Orain... BEHERAPENAK!

**Portugaletik inportazioak!
Prezio ezin hobekak!
Konfidantza osoaz!**

Belem

Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 ARRASATE
Herriko Plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 ARETXABALETA

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

“Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago”

96-97 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Alemana, frantsesa, ingelesa eta gainera umeendako nobedadeak ditugu

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4 ARRASATE Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14 ONATI Tfnoa: 71 60 00



Izaskun Ezpeleta eta Manu Pie de Hierro baietza eman eta gero, andragizon bihurtu ziren zapa-

tuan Udaletxeko Pleno aretoan egindako ezkontzan. Hauen ospakizunak Gure Ametsa jatetxean izan

zuen jarraipena senitarteko bazkari batekin. Ezkon-bidaian Mejikora joan dira. Zorionak!



Zapatuan ere beste ezkontza bat egon zen Udaletxean. **Yolanda Perez de Arenaza** eta **Alberto Ozaeta** ezkondu ziren. Bazkaria Venta Fria jatetxean izan zuten eta ezkon-bidaian Mejikora joan dira. Zorionak bikote!

IZEN PROPIOAK

- **Isabel Gallastegi** 29 urteko abokatu arrasatearra EAko parlamentaria izango da Gasteizko gobernuan. Isabel EAko zinegotzia da Arrasateko Udaletxean. Beraz parlamentari eta zinegotzi lanak beteko ditu aurrerantzean. Gallastegik Inaxio Oliveri ordezkatu du parlamentuan.
- Fagor Arrasaten Euskara batzordea osatu da eta **Jose Luis Aranburu Iturriotz** AED eta *Euskalan* erakundeekin harremanak bultzatzeko arduradun izendatu dute.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Erguin Herri Eskolako ikasleek ekainaren erdialdean ikasbidaian joan ziren Kataluniara. Besteak beste Nuevalosen dagoen Monasterio de Piedra ezagutu ahal izan zuten. Baina Bartzelonan ere izan ziren instalakuntza olinpikoak, Nou Camp, Aquarium-a, Ramblak eta abar luze bat gertu gertutik ikusteko. Azken eguna berriz, Port Aventura igaro zuten. Itzuleran, San Sadurni d' Anoiian gelditu eta "Codorniu" kabak bisitatu zituzten.



San Fermin eguna domekan izan bazen ere, Txatxilipurdiko neska mutilek ostiralean egin zuten entzierroa. Egunkaria eskuan, zapi gorria lepoan eta zuriz jantzita

zezenen zain egon ziren gaztetxoak. Zezenak adar handi eta guztiz bihurri irten ziren baina korrikalari sutsuak ondo baino hobeto moldatu eta ez zen istripu larririk izan.



San Juanetako jai batzordeko kideek afaria izan zuten Sara jatetxean ostiralean. Bapojan eta ondo edan eta gero, umorea ez zen falta izan elkartu ziren 30 lagunaren artean. Afari ostean dantza egitera ausartu zenik ere egon zen. Jatetxetik irterakoan juergan jarraitu zuten goizaldera arte.



Nafarroako AEKk atera zuen diptikoan arrasatear baten aurpegia agertu zen. **Nere Inda Goikolea** beste bost lagunekin batera azaltzen da (argazkian eskubikoa) Nafarroako gobernuak euskararekiko duen jarrera salatzeke AEK kaleratutako diptikotan.

● *Josu Pereda*

Peruko Andeetatik bueltan

Josu Pereda, Mikel Arana eta Bittor Amozarrain arrasatearrak Peruko Andetan izan dira, Mendikate Zuria. Bertako mendi garaienak igo dituzte, eta pozik daude aurrez jarritako helburuak bete ondoren. Mikel eta Josu itzuli dira, baina Bittor han geratu da, mendi gehiago igotzeko asmoarekin lehenengo eta oihana ezagutzeko gero. Josuk eman digu bidaiaren berri.

- Nondik sortu zen Andeetako bidai hau egiteko ideia?

- Ez zen bapateko gauza izan, progresio modura uler-tu behar da. Euskal Herriko mendi asko igo ditugu, baita Pirineotako beste asko ere, eta udaran Alpeetara joan izan gara. Oraingoa beste pausu bat izan da, 6.000 metrotik gorako mendiak igotzea.

- Hortaz, pentsa daiteke zuen hurrengo helburua Himalayan egon daitekeela.

- Ez dugu inolako planteamendurik ekarri komentatu ere ez dugu egin. Gauza bakarra aipatu dugu, hauek igo ondoren 7.000 metrokoak ere igotzeko gaitasuna izan dezakegula, baina horrek planteamendu erabat desberdina

eskatzen du: baimenak, patrozinatzaileak, tramiteak,...

- Garestia izan da?

- Ez gehiegi, 225.000 pta. bakoitzak. Merezi du mendi horiek igotzeagatik.


- Zer moduz joan da Andeetako esperientzia?

- Ondo, aurrez jarritako helburuak betetzeaz gain, beste mendi batzuk ere igo ditugu eta. 5.480 metroko Urus mendia igo dugu, 5.500eko Ishinga, 6.032ko Tocllarajua, 6.300eko Txopicalqui, 6.767ko Huascaran eta 5.947 metroko Alpamayo. Azken bi hauek igotzeko asmoz joan ginen, baina poliki poliki aklimatatuz joateko besteak ere igo ditugu.

Gainera kontuan hartu behar da Alpamayo mito bat dela mendizaleen artean, Besaidoko lokalean bertan hormatik eskegita daukagu. 78an inkesta bat egin zuten mendizale famatuen artean eta mendirik politena bezala hori aipatzen zuten, bigarrena K2a zen, eta hirugarrena Fitz Roy, Patagonian dagoena.

- Espero zenuten moduan ibili zarete?

- Altura kontuetatik nik espero nuen gaizki ibiltzea eta aklimatatu artean burukomi-



nez ibili nintzen. Beste biak ez, lehen ere ibilita zeuden altura horretan eta esaten dutenez behin ibiliz gero, gorpuzta lehenago ohitzen da.

- Eta bestelako arazorik?

- Beno, arraildurekin larri samar ibili gara. Sasoi umela eta lehorra izaten dute han, eta aurten sasoi umela luzatu egin denez mendiak kargatuta zeuden, arraildurak eta ezkutatu.

- Hala ere pozik?

- Gertatzen da momentu latz horiek pasa arren, gero oroimenean une gozoak geratzen direla, txarrak ahaztu egiten dira. Erdi ahaztuta dauzkat dagoeneko. Han nengoela esaten nuen ez nintzela bueltatuko sekula horrelako alturetara, eta orain ez litzaidake arduratuko beste saioaren bat egitea. Balorazio ona egin behar dugu.

- Astirik izan duzue ber-

tako jendeaz egon eta inguruak ezagutzeko?

- Mendi horietara joateko pasatu beharreko tokiak ezagutu ditugu eta inguruak berdin, herrisketako jendearekin eta izan dugu harremana. Turismo lekuetan ez gara egon, denborarik ere ez.

- Janaria hemendikeraman zenuten?

- Energetikoak eta horrelakoak bai, baina gainontzekoa ez. Janariarekin arazoak eduki genituen, olioaren ondorioz seguruen, hirurok gaizki ibili ginen tripetatik eta.

- Horrela egonda ahulda-dea nabaritutako zen, ezta?


- Bai, eta horregatik gero gehiago zaintzen genuen jatekoa. Nik tripa asuntotatik, Txopicalquiko gailurrik ez nuen zapaldu. Gainera, goialdean ibili ginenean, janaria geuk prestatuz, ez genuen tripetako arazorik jasan.

- Etxekoak gustora?



- Beldurra betik pasatzen dute, baina konfidantza ere badute, ez gaituzte zorrotz hartzen.

● **“Alpamayo mito bat da mendizaleen artean, 78an egindako inkesta batean gehienek hori aipatzen zuten politena moduan”**

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.



ZATOZ PEUGEOT GAMA BERRIA EZAGUTZERA!



Zaldipe, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 50 71 / 79 97 12

Berria!

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

EKOMOBIL



PEUGEOT

ARRASATEN, ZERBITZU OSOENA!



Mekanika, elektrizitatea...



Txapa, pintura.



Erakusketa eta salmenta.

PEUGEOT gama
400.000 pta.arteko
deskontuarekin!
Ezagutu ezazu!



LEHOIAREN ESKAINTZAK

- Fiat Uno 4592koa
- Peugeot 405 1.6 GL.....92koa
- Opel Corsa GT.....92koa
- Fiat Tipo TDS90koa
- W. Golf GTD90koa
- Renault 19 TXI (Aire egokituaz).....90koa
- Peugeot 106 1.1 (97ko otsailera arte arrisku orotako aseguruaz)95koa
- Citroën Xantia 1.6.....94koa

Berria!

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

EKOMOBIL



PEUGEOT

TOUR PORRA MUNDIALA!


Zelako martxa daraman gure porrak! Tourrak adinakoa duda barik. Aldaketa eta sorpresa ugari gertatzen ari dira aurtengo Tourrean eta jakina, horrek eragin handia dauka porraren martxan. Egun batean sailkapeneko goialdean dagoena, hurrengoan ez da agertzen, eta akaso pare bat egunera berriro lehen postuetan.

Kontuak kontu, orain arte (asteazkena 10) ondorengo hauek dira eguneroko maillota irabazi dutenak:

- | | |
|-------------------|--------------------|
| 1- Iñaki Larrea | 5- Jon Velez |
| 2- Amets Ugalde | 6- M.J. Etxebarria |
| 3- Aitor Azkarate | 7- Izar Zeziaga |
| 4- Pako Ramos | 8- Kepa Ormaetxea |

Bizikletarako sailkapen orokorra

<i>Izena</i>	<i>Puntuak</i>
• J. L. Azkarate	520
• Jon Mendieta	493
• Consuelo Modino	471
• Esther Fernandez	462
• Ramon Azkarate	455
• Pilar Velez	453
• Itziar Okina	453
• Cesar Azkarate	448
• Jon Velez	448
• J. Felix Torga	446



Begira zelako mendiko bizikleta dotorea prestatu duten **LIZARRALDE KIROLOAK** dendakoek guk antolatu dugun porraren irabazlearentzat!

Eta ez da hori bakarrik porraren partaideek irabaz dezaketen saria, egunero maillot bat ematen diogu eta etapan puntu gehien lortzen duenari. **Gewiss, ONCE, Euskadi eta Mapei** taldeetako maillotak dauzkagu oparitzeko, **Jon Odriozolak, Mikel Zarrabeitiak, Asier Guenetxeak eta Abraham Olanok** sinatuta. Sari bikaina ezta?



Aitor Azkarate duzue argazkiko mutikotxoa, gure porran irabazi zuen maillota jantzita. Ezin ukatu dotore dotore geratzen zaiola Jon Odriozolak sinatutako maillota. Jantzi horrekin laster ikusiko dugu txirrindulari profesionalen tropelean.



Udalekuen hilabetea

**Udako oporregatik ikaste-
txeek atea itxi bezain laster,
udalekuetako atea izaten dira
irekitzen diren hurrengoak.**

**Azkenaldian gazteendako aisial-
dia asko garatu dela eta, gaur
egun uztaila pasatzeko eskain-
tza ugari dago Arrasaten ere.**

**Udalekuak herrian, herritik kan-
po... gero eta gutxiago izaten
dira horrelako aukerei uko egi-
ten diotenak.**

Maria Agirre

Hirurogei begi-
raleren ardu-
rapean, gutxi
gorabehera
600 gaztek
hartuko du
parte Txatxilipurdik uztaille-

rako antolatu dituen udale-
kuetan. Gehienek herrian
egingo diren udaleku irekie-
tan parte hartu dute, baina bada
egunotan Garaioko baserri
batean uztailaren lehen hama-
bostaldia pasatzen dagoenik,
eta baita egunotan Nafarroa-
ko Areso herrira joango denik
ere.

ABENTURAZKO UDALEKUAK

Landatik ezkerretara Gas-
teizerako bidean Garaio ize-
neko herria dago. Leintz Bai-
larako biztanleendako azken
urteetan egin da ezaguna
Garaio, urtegiko inguruak
moldatu direnetik uda parte-
an jende asko joaten da ber-

tara eta.

Txatxilipurdikoek, berriz,
iaz ekin zioten Garaion uda-
lekuak antolatzeari baserri
bat txukundu eta bertan hama-
bost egun pasatzeko aukera
emanez. Aurten bigarren urtea
izan da hainbat gazte Garaio-
ra joan dena. "Ondo gaude eta
ederto pasatzen dugu", diote

uztailaren 1az geroztik udaleku horietan dauden gazte-txoek. Izan ere bainu bat hartu, piraguan nahiz bizikletan ibili eta mendira joateko aukera eskaintzen du Garaioak, eta nahasketa hori oso atsegigarria izaten da.

EGUN BAT GARAION

Goizeko 8.30etan jeikitzen dira Garaioako udaleku-koak. Ordu erdi begiak guztiz zabaldu eta arropak janzteko, eta bederatzietarako gosaltzeko elkartzen dira. Ordurako mahai gainean geratu dago begiraleek prestatutako gosaria: esnea kakaoarekin eta tostadak mermeladarekin. Gosariaren ostean goizeko ekintzei ematen zaie hasiera, normalean ekintza ludikoak izaten dira. Garaion parke naturala dagoenez bigarren egunean, adibidez, informazio zentru bat bisitatu zuten eta han inguruan dauden hegaztien berri eman zieten. Erreportaia egitera joan ginen egunean, berriz, Aguraina bizikletaz joan ziren, herria ezagutzera.

Arratsaldeko lehen ordu-rako baserrira berriz ere, 13.30etan Danel sukaldariak prestatutakoa jateko ordua izaten da eta. Pozik dago sukaldaria umeen moko finarekin nahiz eta gutxitxo jaten dutela esaten duen, eta gazteak ere konforme daude sukaldariaren trebeziarekin nahiz eta zopa gustatu ez. Bazkalostean atsedenaldirako ordua izaten da. Bi ordu gura dena egin edo lo kuxka egiteko. "Tamalez guztiak nahiko ipurdi arinak dira eta inork ez du siestarik botatzen" diotë begiraleek. Denbora tarte hori pasatakoan berriz ere guztiak elkartzen dira arratsaldea tailerretan pasatzeko. Astean irrati tailerra izan dute eta gaur telebistarena. Batzueri aktore/aktorea lanak egitea tokatu zaie eta beste batzueri kamarak mugitzea. Azkenean guztien parte har-



tzearekin atera da seguruenik Garaion filmatuko zen lehen laburmetraia.

Hamabost egunerako egitaraua ondo zehaztuta dute begiraleek, eta horregatik, merienda jandakoan izaten

dute zertan jarraitu ere. Aste-an indio eguna ospatuko dutela eta, gaur indioen kanpamenduak prestatzen aritu dira.

Horrela, eguzkia alden-tzen da Garaiotik eta afalostean gazteek irrika handiz itxa-

roten duten momentua heltzen da: gaubela. Gaueko 11.30ak arte kantatu, dantzan egin edo gaueko jokuetan jokatzeko aritzen dira eta gauerdian argi guztiak itzaltzen dira.

HEZIKETAN ERAGIN


Ondo pasatzeaz gain, gazteen heziketan eragitea dute helburutzat udalekuetako ekintzek. Euren gauzen arduraz izaten jakin dezaten eta Garaion garbigailurik ez dagoenez, gaur arropak garbitzea tokatu zaie. Seguraski galtzeko eta barruko arropen ez zuten hasieran zuten kolore zuria berreskuratuko, baina zertxobait lortuko zen.

Bestalde, egun bereziak antolatzen dira jolas giroan egiten diren ekintzek lagundurik. Beste kultura ezezagunagoen berri izateko indio eguna izan dute, eta hirugarren munduan bizi duten egoera zein den ezagutzeko alde-


Txatxilipurdiren eskaintza zabala

Diputazioak ematen dituen dirulaguntzak asko murriztu dira aurretik baina Txatxilipurdik aurreko urtetako eskaintzari heldu dio. Hiru urtetik hasi eta hamalau urtera arteko ume eta gazteek badute euren neurri-
 ra prestatutako udalekurik.

- Babylekuak: 3tik 6 urtera arteko umeendako. Arratsaldez bakarrik. Eskulanak, denborapasako ekintzak eta irteerak egiten dituzte. Olarten biltzen dira.
- Udaleku irekiak: 6tik 14 urtera arte. Denetarik egiten da udaleku hauetan eta bi eguneko irteerak ere bai.
- Eskuz-esku. 12 urtetik 14ra. Nafarroako Areso herrian 15 egun. Iparraldeko eta hegoaldeko gazteak elkartuko dira. Uztailaren 15ean hasiko dira udaleku hauek.



Heziketan eragitea ere helburutzat dute udalekuek. Horregatik, arropak garbitu behar izaten dituzte gazteek. Horrez gain, baserria garbi edukitzeko garbiketa orokorra egiten dute.



rantzizko eguna. Egun horretan gazte batzuek nahi adina jateko izan dute, ez ordea hirugarren mundukoak izatea tokatu zaienek. Jakina, goiz partean egin zuten ekin-tza hori. Zelan ez, udaleku guztietan bezala, joku olinpikoa ere izan dute.

UMEAK GUSTORA

Pozik daudela eta Garaio-ra joateak merezi zuela esaten dute hara joandakoek, baina ezin ukatu tokiak eragozpen batzuk dituela. Urte-

gia gertu eta inguruan landaretza handia dagoenez, begiraleek aitortzen dute eltxoek askotxo molestatzen dutela. Horrez gain uraren arazoa dago, guztiz edangarria ez denez begiraleek Oza-etara joan behar dute ura ekartzera. Hori bai, inor ez da egarriz geratzen.

Baina gainontzekoa ondo pasatzea da, eta horixe da bertan daudenen ahotik irtetzen dena. "Hemen ez dago etxeko lanik egin beharrik, ezta gurasoen agindu edo bron-

"Hemen ez dago etxeko lanik egin beharrik, ezta gurasoen agindu edo bronkarik entzun beharrik"

• • •

"Udalekuetan lagun berriak egin ditugu"

karik entzun beharrik" dio neskatala batek. Mutilek udalekuetan lagun berriak egin dituztela eta gehien gaubela gustatzen zaiela azpimarratzen dute. "Iparraldeko eta Arabar Errioxako mutiko batzuk etorri dira, eta horrela lagun berriak egin ditugu". Neska gehienek, ostera, aurrez ezagutzen zuten elkar baina hala ere izaten dute zertaz berba egin. "Argi guztiak itzaltzen direnean gure gauzei buruz hitzegiten geratzen gara".

Jesus Mari Barrutiabengoa

“Berriro 3. mailara igotzeko egingo dugu lan”

Jesus Mari Barrutiabengoa 96-97 denboraldiko entrenatzailea da. 33 urterekin entrenatzen duen talde handiena izango da Preferente mailako Mondra. Jesus Mari gogoz hartu du erronka berria eta berriro taldea 3. mailara igotzeko lan egingo duela aitortu du.

— Mondrako entrenatzailea izatea erronka gogorra baina atsegina ezta?

— Bai jakina, erronka garrantzitsua da niretzat. Entrenatzaile moduan entrenatzen dudana talde handiena da eta nire bertakoa izanda ilusio handia ematen dit.

— Aurretik zenbat talde entrenatu dituzu?

— Hiru urtetan emakumeak entrenatu nituen. Bitarte horretan jubentziak eta erregionalak entrenatzeko titulua atera nuen. Gero jubentziak entrenatu nituen. Iaz Ohorezko Ligan hasi eta lehen erregionala entrenatzen bukatu nuen.

— Ze aldaketa dago beheko maila edo preferente maila entrenatzeko orduan?

— Aldaketa handia. Batekiko goiko taldea da eta horrek esan nahi du gauza asko daukela jokuan. Teknikoki, fisikoki eta psikologikoki oso desberdina da. Ez da gauza bera 17 urteko gazte batzurrekin ibili edo 24 urteko beste batzurrekin.

— Nola ikusten duzu Mondra taldea datorren denboraldirako?

— Preferente maila ez dut ondo ezagutzen. Jakin badakit gogorra izango dena,



Jesus Mari Barrutiabengoa Preferente mailako entrenatzailea.

jeitsi samur egiten da baina igo ez. Taldean berriz, esperientzia handiko jokalariek daude, baina gazteak. Iaz 3. mailan aritutako jokalariek ditugun arren, ez da ahaztu behar preferentean azeri zahar asko dagoela, beteranoak, azken urteak maila horretan egin dituztenak.

— Iaztik hona ze aldaketa egongo da taldean?

— Kanpoko jendeak utzi egin du, Prieto, Treviño, Moreno, Jurado eta Zabaletak ez dute jarraituko. Zuletta eta Areitio seguruenera gurekin izango dira. Gai nontzekoak etxeakoak izango dira. Era berean esan behar dut lehen erregionaletik beste jokalariek batzuk igoko direla, Julen Arkauz, Gonzalo esatebaterako. Dena dela, hainbat jokalariek preferente

eta erregionaleko fitxa izango dute, maila bietan jokatu ahal izateko.

— Kanpoan jokatzen ari diren jokalariekin egin duzue berba?

— Gehienekin bai. Iban Arangurenek Durangon jarraituko du. Igor Gordobil UDA taldera doa eta itxaropen bakarra Iker Balzategirekin dugu.

— Zure taldeak zein joku egitea gustatuko litzaizuke?

— Jokuarena oso erlatiboa da, gauza asko hartu behar da kontuan, aurkariak, zelaiaren egoera. Niri kontraerasoan jokatzea gustatzen zait eta baita joku erasokorra ere.

— Zer falta zaio Mondrari talde sendoa izateko?

— Une honetan talde ore-

katua dugula esan dezaket. Atzealdea ondo basbestua dugu baita atea ere. Zelai erdian dagoen jendearekin ez genuke arazorik izan behar. Aurrealdea da beharbada makalena. Goleatzaile bat falta zaigu, Iker Balzategiren modukoa.

— Aurtengo helburua?

— 3. mailara igotzea. Dena dela, jakin badakit zaila eta gogorra izango dena.

— Zivojevic Mondrako koordinatzaile orokorra da, izango du eraginik zuregan?

— Ez eta hori garbi utzi nahi dut. Ni neu naiz preferente mailako entrenatzailea eta nik neuk hartuko ditut erabakiak. Zivojevicekin harremanak izango ditut baina beste entrenatzaileekin bezala.

— UDA eta Mondraren arteko derbiak berriro bizi ahal izango ditugu, horrek jarraitzaileak animatzeko balioko du?

— Espero dezagun balio izatea. Niri jendea Atxabalpera joatea gustatuko litzaizake. Jokalariek bertakoak eta gazteak dira eta jarraitzaileen babesa eta laguntza osoa behar dute.

— Nolako aurrendenboraldia egingo duzue?

— Aste honetan hasi gara entrenatzen eta uztailearen 30a arte horretan jardungo dugu. Gero 14 eguneko oporrak izango dituzte eta abuztuaren 14an berriro entrenatzera. Aurrendenboraldian 6 edo 7 partidu jokatuko ditugu. Denboraldia irailaren 8an hasiko da.

LABURRAK

Zikloturisten irteera

Arrasateko zikloturistek beste irteera bat egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Gorla, Elosua, Azkoitia, Loiola, Azpeitia, Landeta, Etumeta, Aizarna, Bergara eta Arrasate. 108 kilometro guztira. Irteera goizeko 9etan izango da Montterondik. Abuztuan jai hartuko dute zikloturistek.

Santamainako pilota txapelketa

Benjamin, alebin eta jubenil mailako pilota partidua jokatu dira Makatzenako kantxan ostiralean arratsaldeko 6etatik aurrera. Benjaminetan bi neurketa ikusgai. Elorza-Berasaluzeko bikotearen aurkariak Arregi-Balanzategi II izango dira. Gimenez eta Losadak Arkautz-Garridoren kontra neurtuko dituzte indarrak. Alebinetan Malasetxerria-Balanzategi eta Rodriguez anaiak izango dira lehian. Jubeniletan beste neurketa bat: batetik Miranda-Aroztegi eta bestetik Lazkano-Belategi.



Garaje Ederrek irabazi zuen Benjamin mailako finala.

Santamainako futbito txapelketako irabazleak

Santamainako futbito txapelketako finalak jokatu ziren asteburuan. Zapatu eta domekan Santa Teresa eta Makatzenako kantxetan jokalariek gazteak izan ziren protagonista. Zapatuan goizeko 9.30etan Benjamin mailan Pedruscok eta Garaje Ederrek elkarren kontra neurtu zituzten indarrak eta Garaje Ederrek 4 eta 1 irabazi zuten. Ordubete beranduago aurrebenjaminak izan ziren lehian. Equis tabernaren are-

ria Erguin A izan zen. Equisekoek nagusitasun osoz 4 eta 0 irabazi zuten. Emakume gazteen finala ere zapatuan jokatu zen, San Andres eta Indomables taldeen arteko finala. Gol gutxiko neurketa baina. San Andresek Indomables taldea baino gol bat gehiago sartu zuenez, eurak izan ziren irabazleak. Domekan beste hiru norgehiagoka jokuan. Infantiletan Centro Extremeño eta Video Douglas aurrez aurre.

Centro Extremeño taldea 4 eta 2 nagusitu zen. 10.30etan alebin txanda. Fontaneria Aretxabaleta eta Leintz Sport nor baino nor. Neurketa horretan gol bateko aldeaz Fontaneria Aretxabaletak lortu zuen garaipena. Emakumeetan berriro San Andres izan zen jauna eta jabe Indomables taldeari 4 eta 2 irabazi ondoren. Kadeteen finalan Radical Boys-ek 11 eta 5 irabazi zion Bolas No taldeari.

Iñaki Unamuno

Clownetik antzerki dramatikora emandako saltoa


Ostiralean Monterronen ikusiko dugu Iñaki Unamuno arrasatearra Tattan Club antzerki talde donostiarraren "Frankenstein" obran aktore gisa. Iñaki umorezko paperak egiten ikustera ohituta bagaude ere ostiraleko obran lan dramatikoa arituko da.

— Hitz gutxitan, nola hasi zinen antzerkigintzan?

— Ikastolan, txikitan hasi nintzen antzerkia egiten, beraz, afizioa aspalditik daukat, antzerkia beti izan dut gustoko eta. Ikastolatik irten eta gero, 17 edo 18 urterekin, "Hemen" antzerki taldea sortu genuen Batzokian hainbat lagunek. Idiazabalen egin genuen lehen emanaldia eta gero Gurea zinean eta beste leku batzutan eskolendako emanaldiak egin genituen. Soldaduzka egitera joan nintzanean "Hemen" taldea desagertu egin zen. Antzerkigintzara buelta Play Back jaialdiarekin etorri zen. Horren ondorioz Txirta taldea sortu genuen. Orain Donostiako eskola batean, "Centro de Estudios Audiovisuales y Teatrales" en nago antzerkigintza ikasten.

— Zer kontu dezakezu "Tattan Club" antzerki taldeari buruz?

— Eskolak daukan antzerki taldea da, ikaslez osatutako taldea. "Frankenstein" obra eskolako sakontze mailako ikasleek egin zuten eta aktore batek obra utzi behar izan zuenez, ni sartu nintzen. "Tattan Club" taldearekin Almeriako Estatuko Antzerki Jaialdira joan ginen eta han "Frankenstein" obra antzeztu genuen 4. saria lortuz.



— Txirta taldean clowna egiten zenuten, "Frankenstein" obra berriz dramatikoa da...

— Bai, guztiz dramatikoa, betiko Frankenstein obraren beste bertsio bat da, Maria Selleid autorearen obran oinarrituta. Antzerki obra hau Grotowsky antzerki sistemarekin landu da. Sistema honetan eszenatokian garrantzi gehien duena aktorea bera da, dekoratua eta gainontzekoa alde batera utziz. Beraz, oso deko-

ratu sinplea dauka obrak.

— Txirta taldean ikasitakoak balio izan dizu antzerki dramatikoa lantzeko?

— Zuzenean ez baina orokorrean asko ikasi dut Txirtarekin. Diziiplina bat jarraitzen ohitzen zara, entsaioak, bronkak etabar.

— Ze paper daukazu zuk "Frankenstein" obran?

— Hiru pertsonaia des-

berdin egiten ditut eta hiru eszenatan agertzen naiz hitzegiten. Obra osoan 51 eszena daude eta ni, guztira, 49tan agertzen naiz. Lehenengo eszenan barkuko kapitain baten pintxearen papera egiten dut; beste eszena baten uni-bertsitateko irakaslearena eta azkenekoan Frankenstein lakuan hilda aurkitzen duen gizonaren papera daukat.

— Zure herriko jendearen aurrean antzezteak urduriago jartzen zaitu?

— Urduri beti egoten naiz, hori ez da inoiz kentzen. Ardura ematen didana beste gauza bat da. Arrasaten beti ikusi naute umorezko antzerkia egiten, clowna egiten eta "Frankenstein"ek ez dauka umorerik, obra serioa da. Publikoa barre araztera aterako naizela uste dute lagunek eta ez da horrela izango, beraz, horrek pixka bat kezkatzen nau.

— Arrazoi bat eman obra ikustera joateko.

— Tattan Club taldean aktore gisa sartu aurretik taldeak berak egin zuen emanaldia ikusi nuen eta benetan, izugarri gustatu zitzaidan. Antzerki obra arraro samarra dela esan behar dut ere baina jendea ez da distraitzen, hau da, ez da obra aspergarri bat. Almerian egin genuenean 18-20 urteko gazte asko etorri zen obra ikustera eta arrakasta handia izan zuen, gustatu zitzaizen. Horrek ez du esan nahi bakarrik publiko gazte-arendako obra bat denik, baina bai gazteei ere gustatuko zaiela. Nire ustez oso erne egoitea eskatzen duen obra da, bost zentzuekin adi-adi.

"Arrasaten beti ikusi naute umorezko antzerkia egiten, clowna, baina "Frankenstein" obra guztiz dramatikoa da"

“Itsasotik itsasora bizikletaz” bira *Debagunerekin*

Debagunek “Itsasotik Itsasora Bizikletaz” martxa antolatu du abuztuaren 3tik 17ra. Bidaia honek 14 egunetan Mediterraneotik Kantaurira mendi bizikletaz joatea du helburu. Guztira bizikletaz egin beharreko 1.040 km. ditu ibilaldiak, Kataluniako Figueres herrian hasi eta Donostian amaituko da.

Martxa hau 1993an hiru arrasatearrek egin zuten ibilaldian oinarrituta dago eta bizikletazale horiek egin zituzten etapak jarraituz ibilaldi berdintsua diseinatu du Debagunek.

Mendi-bizikleta bidaia honetan parte hartzeko AEDn izena eman beharra dago, era horretan Figuerasera bidaia egin eta bizikleta bertaraino eramateko prezioa ordaintzeko. Gainontzean talde antolatzaileak ez du bere gain hartuko ibilaldi zeharreko gastuak, hau da, ez janaria eta ezta ere lo egiteko tokiak. Ion Ozaeta, ibilaldi honetako antolatzaile batek esaten duenez “bakoi-tzak bere kontu gosaldia, bazkaldu eta afaldu beharko du eta gainera lo egin edozein



Ondo prestatuta egotea komeni da ibilbide honi aurre egiteko.

lekutan egingo dugu; arku-petan, jardinetan... eta euria egiten badu, busti egingo gara, ibilaldi honek abentura kutsu bat dauka eta”.

70 Km.ko etapak

Abuztuaren 3an Figuerasera bidaia egingo da eta hurrengo egunean lehengo etapari ekingo zaio: Figueres-Banyuls (56 km). Hurrengo etapak honakoak izango dira: Banyuls-Prats de Mollo (88 km), Prats de Mollo-Villafranche de Comfent (63 km.), Villafranche-Latour de Carol (69 km), Latour de Carol-Seu

D'Urgel (88 km.), Seu D'Urgel-Esterri d'Aneu (88 km.), Esterri D'Aneu-Montrejeau (111 km), Montrejeau-Artigues (67 km), Artigues-Pontacq (79 km), Pontacq-Oloron (68 km), Oloron-Cambo Les Bains (118 km), Cambo Les Bains-Donostia (138 km).

Ibilaldian zehar mendate desberdinak igoko dira, Puimotens

(1.915 m.), Envalira (2.407 m.) eta Bonaigua (2.072 m.) adibidez.

Ibilaldian parte hartu nahi duenak AEDko 771228 telefonora deitu beharko du.

LABURRAK

Kontzertuak Gaztetxean

Larunbatean eta datorren asteazkenean musika kontzertuak izango dira gaztetxean. Larunbatean gaueko 9etan Fuck You Crew Berlingo taldeak joko du. Talde honek rap, hard-core, ska eta perkusioa nahasten du bere abestietan.

Asteazkenean berriz, arratsaldeko 8etan Berlingo beste talde bat izango da entzungai: Bud's Balooxe. Hamar lagunek osatzen dute talde hau eta ska doinuak egiten dituzte. Talde hau organu batek, bi kitarrak, haizezko lau instrumentuk, baxu batek eta bi kantarik osatzen dute.

Bidai liburuak

Uztailero moduan, Arrasateko liburutegiak bidai liburuak jarri ditu kontsultagai Monterronen. Liburutegian mundu osoko lekuei buruzko informazioa aurkitu daiteke baina liburuak asteburuetarako bakarrik har daitezke maileguan. Liburuekin batera Gazte Bulegoko foileto informatiboak aurkitu daitezke.

AMI oinetakoak



OINETAKOEN AUTOZERBITZUA
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

ECCO Trabajo Temporal

ECCO T.T.S.A Empresa de Trabajo Temporal
Aut. Adm. Nº 79/0002/94
Dirección General de Empleo

Aldi Baterako Lanean Munduko Liderra den Enpresa Multinazionalak behar ditu Arrasateko ordezkariarako:

- * Sustatzaile erakusleak.
- * Saltzaile erakusleak.
- * Saltzaileak edo saltzaile - laguntzaileak

Erosten Handietan esperientziadunak eta autoa daukatenak

Interesa dutenek deitu 79 57 00 telefonora edo, bestela, curriculumak bidali helbide honetara:
143 postakutxa, 20500 ARRASATE





Gerra aurretik, Errepublika garaian, eskola ofizialek aparte beste bat ere izan zen Arrasaten, Alderdi Jeltzalea, eliza eta ELA sindikatuaren inguruan sortutakoa. Abadetxean izan zuen kokapena eta baita Gurean ere. Gehiena erderaz irakasten bazieten ere, euskarazko eskolak ere hartzen zituzten, Sabino Aranak ezarritako arauei jarraituz.

Gerra etortzearekin batera bukatu zen eskola haien historia eta aipagarria da 1936ko uztailaren 18rako, gerra hasi zen egunerako, Gernikara joateko ibilaldia prest zutela.

Argazkikoak eskola hartan ibilitako batzuk dira. Ezkerretik eskumara eta zutik: Alfonso Gorroñogotia, ezezaguna, Miguel Unamuno, Lorentzo Narbaiza,

Antonio Berezibar, irakaslea Francisco Mendizabal, Manolo Uriarte, Pedro Barrutiabengoa, Bittor Usabiaga, Jose Murguzur eta Jose Markaide. Makurtuta: Jose Ramon San Miguel, Jose Berezibar, Miguel Vazquez, Imanol Urkiola, Jesus Unamuno, Jon Arregi, Jose Arregi eta Luis Usabiaga.

EGUZKIGRAF
 inprimategia
 Industrialdea 1-0-4
 Tfnoa: 791844
 Faxa: 792041
 ARETXABALETA

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**
 Plastiko eta burdinazko hodiak
 beirina eta kristalak
 akzesorioak
 Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Z E R N A H I A G O ?

Leire Azkoaga

Yo-Le gozokidendakoa



- Zer saltzen duzue gehien? Betikoa, pipak eta txikleak.
- Nondik ekartzen dituzue gozokiak? Bizkaiatik eta Arabatik.
- Umeek diru asko gastatzen dute gozokitan? Baietz uste dut.
- Irakurtzen dituzu dendan dauden aldizkari larrosak? Bai, guztiak.
- Ze zaporeko txikleak saltzen dira gehien? Mentazkoak.
- Zein izozkik dauka arrakasta gehien? Kornetek.
- Karies asko duzu? Ez, baina hemen lan eginda gozoki asko jaten dudala esan behar dut.
- Noiz etortzen da ume gehien? Asteburu arratsaldetan.
- Egin dizuten azken oparia? Nire etxeko lorategian jartzeko zuhaitz bat.
- Zuk egin duzun azkena? Musika kaxa bat.
- Noiz egin zenuen azken gaupasa? San Juanetan.
- Jeikitzen zara San Ferminetako entzierroak ikustera? Ez.
- Zer ordutan jeikitzen zara? Zortzi t'erdietan.
- Dutxa ala bainua? Dutxa.
- Zine zuzendari bat? Quentin Tarantino.
- Zein aktorekin hartuko zenuke kafetxo bat? "Expediente X"eko Mulder agentearekin.
- Kolore bat? Beltza.
- Eguzkia hartzen duzu? Bai.
- Ezkondu ala elkarrekin bizi? Ez bata eta ez bestea.
- Bizio bat? Janaria.
- Animalia bat? Zaldia.
- Nora idatzi duzu azken gutuna? Bilbora.

LEHIAKETAK

Arrasate 96 Lehiaketak

AEDk urtero antolatzen duen Arrasate 96 Lehiaketak hurrengo edizioak berrikuntzak izango ditu. Lehiaketa honek bere 10. urtemuga ospatuko dute eta urtemuga berezi horrekin batera sail berriak atera ditu AEDk. Ohiko sailez gain, hau da, ipuina, poesia, bertso-paperrak eta komikiaz gain, beste hiru berri izango dira: Arrasateko euskararen testigantza, antzerkigintza eta ikus-entzunezkoen gidoigintza.

Arrasateko euskararen testigantza lehiaketa herriko euskararen egindako magnetofoi grabaketa batean oinarrituko da. Gaia librea izango da eta 12 eta 20 minutu arteko grabaketak onartuko dira.

Antzerkigintza lehiaketan gidoi osatu bat egin beharko da, antzerkia burutzeko modura osatua. Gaia librea izango da ere eta gehieneko luzeera 15 orrialde. Ikus-entzunezko komunikabideetarako gidoia sailean, edozein irratsaio edota telesaioren gidoia osatu beharko da (iragarki sorta, erreportaia, bideo-klipa...). Luzeera 5-10 minutukoa.



NEKAZALTURISMOA



Zabola, z/g • Tfnoa: (945) 44 50 95 • ARAMAIO (Araba)

UNZUETA

JATETXEA eta LOGELAK

- Egunero zabalik
- Lau gela bere bainuarekin
- 120 lagunendako jantokia (banketeak, jaunartzeak, ezkontzak, enpresa bilerak...)
- Espezialitatea: haragi eta arrain parriladak

• ESAERA •

“Aberatsak jan egiten du; pobreak, berriz, elikatu egiten dira”

QUEVEDO

• JEROGLIFIKOA •



Aurrerabidean: gaur bat...

• GURUTZEGRAMA •

1	2		3	4	5	6	7
8			9				
10		11					
12						13	
14						15	
16					17		
18							

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ezaguna ez dena. 8. Sevillako ibilgailuetan. 9. Untzi batek uzten duen ur-arrastoa. 10. Gabonetako gozoki tipikoa. 12. Erorkor. 14. Maitasunaren jainkosa erromatarra. 15. (Ald.) Alfabeteko hamaikagarren letraren izena. 16. Eusko Trenbideak. 17. Animaliak elikatzeko laborea. 18. Lapurdiko udalerrria.

Bertikalak 1. Txirindulari taldeko zuzendaria. 2. Zeure egin. 3. Takoi. 4. Boz, mintzo. 5. Jurista erromatarra. 6. Itsasoan ugari. 7. Aski. 11. Piraten edari alkoholikoa. 13. Etxe-lerro biren artean doan bidea. 17. (Ald.) Musika eskalako lehenengo nota.

• HOROSKOPOA •

Aries Kanpai hotsak entzuten dituzu baina ez dakizu non.

Taurus Gauza arraroak egiten dituzu gauetan. Zer dela eta?

Gemini Kezka gehiegi duzu baina oporretan guztiak ahaztuko dituzu.

Cancer Amets horiek betetzeko dirua beharko duzu poltsikoan.

Leo Egoera zailari umorez aurre egiten saiatuko zara.

Virgo Harreman sentimentalak okertzen hasiko zaizkizu. Kontuz!

Libra Gaiztoa zara benetan. Batzutan ez duzu bihotzik.


Scorpio Gogoa behar da sukaldetan fin aritzeko eta zuri hori falta zaizu.

Sagitaris Zure etxeak kezkatuta dituzu. Uler iezaiezu.

Capricorn Jaietan ezagutu zenuen laguna ez da hain zintzoa.

Aquarius Ez etsi, bihar edo etzi lortuko duzu.

Piscis Zertan pentsatzen zaude? Aukerak galtzen ari zara.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape kortinak,
Kortinoba, textila...

• TELEBISTAREN TXOKOA •



Laster saio berria ATBn

Argazkiko bi neskatok, Maier Urangak eta Nerea Barrutiak, "Lotsa barik" programa berria aurkeztu eta zuzenduko dute datorren urritik aurrera. Gazteei zuzendutako programa dibertigarri bat egitea

nahi dute bi neska hauek eta gogo horrekin buru belarri lanean hasi dira dagoeneko. Euren saioan famatuei elkarrizketak, kaleko inkestak, bideo-klipak eta beste hamaika gauza egingo dute.

• KOMIKIA •



Zoguzar.

• PROGRAMAZIOA •



12 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan

Berriak

15 Astelehena

20.00, 20.30 eta
21.00etan

Berriak

16 Asteartea

20.00, 20.30 eta
21.00etan

Berriak

17 Asteazkena

20.00, 20.30 eta
21.00etan

Berriak

18 Osteguna

20.00, 20.30 eta
21.00etan

Berriak

19 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan

Berriak

• SOLUZIOAK •

Bihar bi:
Jeroglifikoak:
(Ald.) Od.
Ur. 7. Nahiko. 11. Ron. 13. Kale. 17.
tu. 3. Zurruna. 4. Aho. 5. Gato. 6.
Berrikalok: 1. Estevez. 2. Zeur-
18. Zuralde.
Venus. 15. (Ald.) Ak. 16. ET. 17. Olo.
9. Uharra. 10. Turroi. 12. Ertotoki. 14.
Horizontalak: 1. Ezezaguna. 8. Se.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



**ANBOTO
BODEGA**

Auzo giro jatorria!

Anboto, 1 behea
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

Etxebizitzak

- **Etxebizitza salgai Arrasaten.** Tfnoa: 79 36 53.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 61 15 (gauzez).
- **Pisua salgai Cordoba y Oro kalean** (San Andres). 3 logela, egongela, sukaldia, berogailua... Tfnoa: 79 67 65. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Donostian apartamentua alokagai** abuztuan. Tfnoa: 21 22 68. Inda.
- **Ikasturterako pisua alokatzen da Donostian.** Oso merkea. Tfnoa: 71 50 87.
- **Playa de la Matan** (Torrevieja) guztiz jantzita dagoen apartamentua alokatzen da. TB, igogailua... Tfnoa: 71 63 19. Tfnoa: 81 55 83.
- **Uztailean pisua alokatuko nuke** Arrasaten. Tfnoa: (947) 50 99 59.
- **Lokala alokatu nahi dugu** nahiz eta txikia izan edo egoera onean ez egon. Tfnoa: 79 20 03.
- **Donostian apartamentua alokatzen da** abuztuan. Hilabete osoa edo 15 egun. Hondartzatik gertu dago. Tfnoa: 21 22 68.
- **Familia batek pisua alokatuko luke** Arrasaten abuztuan bizitzen hasteko. (94) 620 32 20.
- **Hiru lagun behar dira pisua osatzeko.** 12.000 pta. Jon. Tfnoa: 65 52 98.
- **Familia batek pisua alokatuko luke** Arrasate abuztuan. Tfnoa: (908) 57 64 83.
- **Santa Polan (Alicante) apartamentua** alokatzen da uztailearen bigarren hamabostaldia eta abuztu osoa. Tfnoa: (983) 77 02 14.
- **Pisua behar dut Arrasateko erdialdean** ahalik eta azkarren. Tfnoa: 79 78 10.

Lana

- **Kalkulo irakasle bat behar da** goizetan 2 orduko klaseak emateko. Tfnoa: 79 73 45.
- **Klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 90 46. Susana.
- **Neska gazte euskaldunak uztailean** zehar umeak zainduko lituzke gauzez edo egunez. Tfnoa: 79 12 00. Agurme.
- **Informatikako 4. maila bukatuta** daukan gazteak OHO, BUP, Pascal, C eta MsDos-eko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.
- **Arotz bat behar dugu** lehen edo bigarren mailako ofizialaz. Interesatuak dei egin 79 34 40 tfno. ra goizeko 10etatik ordu bata arte eta 4.30etatik 8etara.
- **Fisika eta kimikako klaseak** emateko irakaslea behar dut. Tfnoa: 79 73 25.
- **Ileapaintzaile ikaslea** ileapaindegietan lan egiteko prest. Udan egun osoz eta urtean zehar goizetan. Tfnoa: 79 75 55.
- **BUP lehen mailako klase** partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 79 68 75.
- **Uztailean ingelesezko klase partikularrak.** Talde txikiak. Tituloduna eta esperientziaduna. Tfnoa: 77 02 42.
- **REM eta UBiko klaseak** ematen dira euskaraz zein erdaraz. Fisika, matematika eta marrazketa. Tfnoa: 79 82 01. Iñaki.
- **Kimikan lizentziatuak klase partikularrak** ematen ditu. Matematika, fisika eta kimika. Interesatuok 79 42 97 tfnora. dei egin.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 48 12.
- **BUPEko 2. mailako latineko eskolak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 20 24.

Salerosketak

- **Zaldiak saltzen dira.** Tfnoa: 79 61 15. Gauzez.
- **TA 2212 fotokopiagailua salgai.** Oso gutxi erabiltia. 105.000 pta. Tfnoa: 79 08 45.
- **ECR 375 kutxa erregistradorea salgi.** 65.000 pta. Tfnoa: 70 08 45.
- **Premier bateria osoa salgai.** Signia modeloa. Oso egoera onean. Urte térdi dauka eta oso onda zainduta dago. Tfnoa: 14 79 79.
- **Yamaha XS-400 motoa salgai.** NA-M. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaudituta. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.
- **Peugeot 505 Turbo Diesel Covadonga** modeloko salgai. SS-F. Tfnoa: 79 94 11.
- **200 litroko akuario berria salgai.** Tfnoa: 79 04 35.
- **Kanpin-karro denda erosiko nuke.** 74 05 37. Mila.
- **Kanpin-karro denda salgai.** Tfnoa: 79 65 70.
- **Auto berri baten gaineko lehiatila salgai,** baita ere Galaxy Jupiter emisorea eta Panasonic erantzungailu automatikoa. (908) 57 64 83. Josean.

Denetarik

- **Festina gizonetzko** erlojua galdu nuen larunbatean Amaia antzokitik Ferixalekurako bidean. Tfnoa: 79 05 24.
- **Uztailaren 6an urrezko pultsera** bat galdu nuen Miren Edurne jartzen du. Tfnoa: 79 14 48.
- **Urrezko pultsera bat galdu nuen** uztailearen 1ean edo 2an Musakola eta Kataide artean. Tfnoa: 79 99 34.
- **Txakurkumeak oparitzeko ditut.** Arraza nahasi-koak eta oso politak dira. Tfnoa: 79 94 00.

Aste Gazte

Bekak

- **Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak** (IVEF) 96. urteari dagozkion lankidetzak beketarako deia egin du. Bi motatako beka egongo dira: a) beka bat euskararen arloan laguntzeko, b) bederatzi beka Erakundeak egingadako programan laguntzeko. Epea: urriak 4.
- **Bergarako Udalak** Justo Garate Arriola beka deitu du, Euskal Herriko Historiari buruz ikerketak lanak egiteko. Hizkuntza: euskaraz. Baldintzak: diplomatura, 35 urte baino gutxiago. Diru

zenbatekoa: 935.000 pta. Epea: irailak 1-30.

Lana

- **Irungo Musika Udal Fundazioak,** honako lanpostuak betetzeko deia egin du: bibolin irakasle bat; kitarra irakasle bat eta klarinete irakasle bat. Epea: uztaileak 28.
- **Altsasuko Udalak,** Kultur Kudeatzaile lanpostu bat deitu du. Epea: uztaileak 26.
- **Aretxabaletako Udalak,** Kirol Teknikari lanpostu bat kale-ratu du. Diplomatupei zuzendua.

Lehiaketak

- **“Imajina ezazu Euskadi IX. Ekitaldia”,** Banco Central Hispanok deituta. Margolaritza, argazkigintza, poesia eta ipuinak. Guztien epea: irailak 30.
- **“Ernestina de Champourcin” VII.** poesia sariketa. Gaia librea. Euskaraz zein gazteleraz. Edonork har dezake parte. Epea: irailak 20.

Soldaduzka

- **Ikasketa prorroga** eskatze-ko epea gogoratu uztailearen 3 leian bukatzen dela.

“Inor ez da gazte jaiotzen, gaztetasunaz jabetu egin behar da. Eta idealik gabe, ez dago lortzerik”.

**JOSÉ INGENIEROS.
SOZIOLOGO ETA
PSIKIATRA
ARGENTINARRA**

**Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

DERMATOLOGIA

ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1	☎79 72 16
---	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6	☎79 50 75
---	-----------

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

OTORRINOLARINGOLOGIA

ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....	☎79 20 18
---	-----------

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
--	-----------

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatu, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Lilugarria berrikuntzetan eta lilugarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 



TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.